

LUR ARROTZ

“Quien es odiado por el pueblo, como el lobo por los perros, es el espíritu libre y soberano, enemigo de todas las bajezas y de todo adorar, que vive fuera de la manada”

F. Nietzsche

Airetik dena ikusten da ederragoa; baita sunsitzeko agindu dizutena ere. Goizean goiz, Arrateko landak estaltzen dituen ihintzak distira egiten du egunsentiaren lehen izpiekin. A ze ikuskizuna, etengabe iraungo nuke hegan. Ea gerra zakur hau azkar bukatzen den. Miranda kapitainaren ahotsa irratian. Ia ez da entzuten motoreen zaratarekin. Beste bi hegakideak altuera galtzen. Kalamuaren profil zapala parez pare. Gainean gureak, nazionalak; Etxebarria aldera errepublikanoak, ehun bat metro beherago irekitako lubakietan. Tarte txikia da, kontuz ibiltzeko errepikatu digute behin eta berriz. Lehen tiroak. Gutierrez beti izan da ipurterre samarra. Metrailadoreari heldu diot neuk ere. Tarra-tarra, tarra-tarra. Gorrien gunea pasatu eta bagoaz gora berriro ere. Txalo eta oihu egiten digute gureek. Airean maniobra egin eta bigarren pasaldia. Tarra-tarra, tarra-tarra. Alde ederrekoa da abiazioa izatea. Lubakietan ezkututzen dira, arratoiak zuloan bezala. Ez diote eutsiko, ezin dute. Aste gutxian hartuko dugu iparralde guztia, seguru. Bagoaz gorantz berriro. Ze izan da hori? Tiroak gure kontra? Metrailadoreren bat dute lurrean, antza. Kaka zaharra. Metal hotsa. Eman didate. Aluak. Urrundu egin behar naiz hemendik. Tiro gehiago. Zerrikumeak. Eskuin hegaleko motorea ketan. Altuera galtzen ari naiz. Eutsi, txikito, eutsi. Lurraren kontra noa. Ea zuzentzerik dudan, behintzat. Goazen, txikito, pixkat gehiago. Belarrak bigundu du kolpea, baina abiadan noa. Harkaitzaren kontra ez! Harkaitzaren kontra ez!

Iluntzen ari zuen. Gizonek ehiza egun bikaina izan zuten eta haragi pusketak sutan prestatzen ziharduten. Biribilean bilduta zegoen leinua, ehizakia ahora eramateko irrikaz. Inork ez zituen otsoak hurbiltzen aditu, oharkabeen eraso zutenera arte. Anabasa nagusitu zen. Bizkorrenek aizkorak eta makilak hartu eta aurre egin zieten. Liskarra sekulakoa izan zen. Harrapari gosetuen letagin zorrotzak arma primitibo haiek baino askoz eraginkorragoak baziren ere, gizonak ugariagoak ziren eta borrokan zailduak. Ihes egin zuten azkenean gudu basatiaren ostean, ehizaren zati handi bat ahoratuta. Hainbat gizon eta emakume zauritu utzi zituzten atzean. Basora iristean, otso beltzak taldean erreparatu zuen. Otsoko arrea falta zen.

Gela ezezagunean topatu naiz esnatzean. Nire uniformearen ondoko aulkian eskegita. Gorputz guztiak ematen dit min, burua lehertzean. Eskuin besoa bendatuta, zauriak garbituta. Izara txukunen lurrina hauteman dut, zerikusirik ez nire Heinkel 51-ko gasolina usain nazkantearekin. Zerraldo erori naiz lurrera zutitzen ahalegintzean. Sokaz lotuta ditut hankak. Entzun du norbaitek nire danbatekoa, eskailera hotsa igarri baitut segidan. Mutiko sendo bat sartu da gelan, atea modu basatian irekita. Paparretik eutsi eta belarrondoko beldurgarria eman dit. “Ihesean al hindoan, sasikume faxista?”. Beste belarrondoko bat gutxira, oraingoan beste aldean. “Hator, leihotik izango duk laburrena”. Bazterrerantz tatarrez eramanez, eta leihoa ireki du. Airean kulunkan nire gorputz erdia. Soro luze bat ikusi dut lehenbizi aurrean, eta lurzorua jarraian, nahi baino hurbilago. Beldurrak izoztu nau, askatuko nauelakoan. Neska baten ahotsa, bat-batean, aingeru guardakoaren erara. Gela barrenera itzuli naiz berriro, txotxongiloa dirudit. Ohera bota nau tipoak, bortxaz. Amorrugarria begirada zuzendu dit gelatik irten orduko. Neska ilehoria eta biok gelan. Zauriak begiratu dizkit. “Min ematen al dizu besoak?”. Ahots gozoa, aurpegiera serioa. “Ez, ondo dago”. Estutu egin dit, nire oinaze keinua

ikusi arte. Barre egin du, jolasean balebil moduan. “Zortea izan duzu. Duela bi egun aurkitu zintugun hegazkinaren arrastoen artean. Bertan hilko zinen nire nebagatik izan balitz”. Erasoa oroitu dut, istripua. Ez dut jakin zer erantzun. Neskak ni artatzen jarraitzen du. Izarak batu eta gainera bota dizkit, samur-samur. “Eta zergatik ez ninduzuen bertan utzi?”. Hasperen egin du, hitzak topatu nahian. “Gu ez garelako zuen modukoak, bizitza estimatzen dugu”.

Gizonak ehizara abiatuak ziren emakumeari intziri xumeak aditzea iruditu zitzaionean. Buztin eta lasto alez eraikitako txabolaren atzealdera hurreratu zen. Hasieran ezer ikusi ez bazuen ere, aiene penatuen hotsak bazterrean ezkutatuta zegoen animaliatxoa aurkitzera eraman zuen. Otsokume zauritua, bezperan herrixka erasotu zutenen taldekoa. Hanka bat odolduta ageri zuen, eta hura miazkatzen ziharduen, atsekabez. Begi xaloekin, errukarriekin, begiratzen zion emakumeari. Instintiboki, harrapari madarikatu hura akabatzea pentsatu zuen. Harrizko aiztoaren bila ere joan zen txabola barrura, eta arma eskuan zuela itzuli. Hura otsokumearen zintzurreraino eraman zuenean, ordea, barnetik erne zitzaion zerbaitek bizitza hura eraustea eragotzi zion; ama senak agian, begi atsekabetu haienganako gupidak beharbada. Kontua da ez zuela hil. Are gehiago, lastoaren bila joan eta ingurua eskumenez estali zion, gorde guran, berak hartu ez zuen otsotxo hura hiltzeko erabakia beste norbaitek har ez zezan. Aurreko hankak aurrea eta atzekoak hurrena lotu zizkion soka lodiz, ihes egin ez zezan, berarekin zer egin pentsatzen zuen artean. Kontu handiz egin zuen, animalia eriaren errepresaliaren beldur. Baina horren ordez, otzan azaldu zen, indargetuta. Ur parrastada bat bota zion ondoren bere gordeleku berriaren ondora, egarrituta egongo zela iritzita, eta bere zereginetara bueltatu zen.

Ohera lotu naute larruzko uhal lodi batekin, badaezpada. Neskak Maria du izena. Ezin zuen beste izenik izan. Egunean hiruzpalau aldiz etortzen zait gelara. Jatekoa ekarri, nola nagoen galdetu eta zauriak begiratu. Dena iruditzen zait sentsuala beragan: bisaje zuri guria, soineko estuaren azpian nabarmentzen zaizkion forma lerdinak, makurtzeko modu irmoa. Neba Manuel da. Begirakune beltzez gela izkinan. Hanketako soka eta larruzko uhala ondo lotuta dauzkadala egiaztatzen du etengabe. Egunak aurrera doaz eta egoera anormal honek ezin du iraun. Uste dut ez dakitela zer egin nirekin. Nik ere ez dakit zer egin, egia esateko. Ezin hobeto zaintzen naute, eta ez dute inolako beharrik. Badakit ez direla nazionalen aldekoak; baina ez dut uste gorriak direnik ere, bestela hilda nengoke. Gerrak erdian harrapatu duen baserri horietako bat delakoa daukat, besterik gabe; bat gehiago. Gerra ez da aukeratzen, ordea. Egunero entzuten ditut hegazkinen txistuak, leherketak antzeman urrunean. “Zer egingo duzue nirekin?”. Zeharka begiratzen dit Mariak. Badakit ez dakiela. Bekokia ukitu dit. “Sukarra daukazu”. Konketa eta zapi bustiarekin itzuli da. Alkandora kendu eta soin izerditua garbitu dit. Gero aurpegia. Zapi zikina konketan garbitu eta bekokian jarri dit, freskatzeko. Iluntzeko izpi ahulek bere begi urdinak argitzen dituzte. Tristezia eta txera maitekorra darie. Irribarrea atera zaio besoa laztandu diodanean. Orain, distira amultsua baino ez darie.

Jakiak biltzera atera zen biharamunean gainerako emakumeekin batera, zuhaitzetako fruituak batik-bat. Belarria adi-adi zeraman, herrixkatik etor zitekeen otso-orro ozenen bat entzungo ote zuen. Ez zen halakorik izan, zorionez. Lasai aritu zen beharrean, eta egurrezko treska beteta zekarren bueltan. Artega igartzen zen nolana ere eta, herrixkara hurbiltzen zen heinean, begiradak bere txabolaren atzeko aldera ihes egin zion nahi gabe. Ontzitik ale gutxi batzuk lapurtu eta larru artean ezkutatu zituen.

Txabolara itzultzeko abagunea iristean, etxondoko gordelekura joan zen segidan, gizona iritsi orduko. Lasto artean zulotxo ireki eta bertan aurkitu zuen otsokoa, bezperan utzitako toki berean, bere begi zaildu gabeez, bisitaren zain. Intzirika hasi zen emakumea ikustearekin batera, mihia kanpora aterata. Isiltzeko agindua eman eta ziztuan obeditu zion piztia erituak, meneko erabat. Ez zela gainerako otsoen moduko basabere arloa iruditu zitzaion. Aurpegi xaloagoa eta biribilagoa zuen basakume haien aldean, maitagarriagoa neurri batean; eta emakumeari atsegin zitzaion hori. Ebatsitako fruituak utzi zizkion ondoan eta mokadu batean desagerrarazi zituen otsoak. Etzan egin zen jarraian eta lo seko geratu, ahulduta oraindik, bere zaindariak emeki so egiten zion artean.

“Zertarako gerra?”, atera zaio bazkariarekin etortzean. Inozentziaz galdetu dit, zinez. Inozoa sentitu naiz. Besotik eutsi eta nire gainera bota dut, platera mahaitxoaren gainean jartzeko makurtu denean. Lore usaina dauka. Musu eman diot, samurtasunez, berriro zutitu orduko. “Ze ari zara?”. Haserretuarena egin du, baina kolore gorriak lotsarenak iruditu zaizkit. Gela betetzen du bere presentziak. “Aska nazazu eta goazen biok hemendik”. “Ezin dut hori egin”. Arrazoi du, ezin diot halakorik eskatu. “Esan nebari igotzeko, berarekin hitz egin nahi dudala”. Zalantza egin du. “Niri bost axola gerra alu honek. Esan nebari igotzeko, mesedez”. Behera jaitsi eta Manuelekin itzuli da gutxira. “Ze behar duk hik?”. “Faborea itzuli”. Bekokia zimurtu du. “Bizitza zor dizuet eta laguntzea nahi dut. Aska nazazu, eta behar duzuen guztia egingo dut”. “Nola fida naitekek?”. Uniformea seinalatu diot. “Pistola bat zegoen uniforme horretan, kargatuta”. Baiezkoa egin du buruarekin. “Okerreko zerbait egiten dudan unean, egin horrekin tiro”. Gaez entzuten ditut landan lanean, eguneko tiro eta liskarren beldur; gero eta ugariagoak eta hurbilagoak dira. Ez du aukera askorik. Gelatik irten eta pistola eskuan

duela sartu da bueltan. Eskuin lokian jarri dit armaren mutur hotza. “Ez diat zalantzarik egingo, entzun?”.

Otsoaren orro beldurgarriek hautsi zuten gau beltzaren bakea. Leinuko arima guztiak jaiki ziren ziztuan eta euren txaboletatik atera, armak goian. Oihu basa bera entzun zen gutxira, baina ez zen otso-talderik inon ageri. Leinukide batek txaboletako batetik zetorrelakoa egin zuen, eta emakumeak amore eman behar izan zuen. Ezkutalekura bideratu zituen denak eta lastozko paretara eraitsi zuen, otsokumea agerian utziz. Hura ikusten, instintu hutsez, bi gizon hurbildu zitzaizkion mehatxuarekin behin betiko bukatzeko asmoz. Emakumea aurreratu zitzaien, alabaina, eta euren aurrean jarri zen besoak zabaldua. Bera kargutuko zela piztiaz eta lepoa ez mozteaz konbentzitu zituen. Bi gizonen artean eutsi eta larruzko muturreko sendo bat jarri zioten aurrea. Gero, soka lodi batez eztairitik estutu eta herrixka ondoko zuhaitz sendo batera lotu zuten. Azkenean, hanketako kordak moztu zizkioten. Ziztuan jarri zen lau hanken gainean otsoa, batek huts egiten ziola agerian zegoen arren. Begiak ankertuta, orro egiten ahalegindu zen. Muturrekoak eragozten zion, alabaina. Euren zereginetara itzuli ziren denak, eta apenas hurbildu ziren gehiago harengana. Emakumeak, berriz, esan bezala egin zuen. Egunero joaten zitzaion fruitu aleren bat edo janari hondakinen bat eramatera, hutsik egin gabe. Aldi baten buruan, zain izaten zuela ohartu zen, mantso eta lagunkoi. Hankak ez zuela onera egiten ikusita, basoan bildutako belarrez egindako enplastu bat prestatu zion. Hura jartzeko hurbildu zitzaionean, ordea, basapiztia azaleratu zen. Emakumea lurrera bota eta bertan xehatuko zukeen, lotuta izan ez balitz. Euren begiek elkar aurkitu zuten: sutuak batarenak, erituak bestearenak. Lurretik jaiki eta alde egin zuen, atzera begiratu ere egin gabe. Hurrengo egunetan ez zen handik igaro.

Ilargiak argitzen duenean belarra bereiz daiteke gutxienez. Gau beltza da gaurkoa, dena estaltzen dute hodeiek. Gerrak atsedean hartzen du gauetz, zailagoa da ikusten ez denari tiro egitea; eta orduan egiten ditugu baserriko lanak. Eskuarearekin belarra biltzen dihardugu Mariak, aitak eta hirurok. Manuelek sardearekin altxatzen ditu gero belar piloak gurdira. Itsumustuan gabiltza, ez da tutik ere ikusten. Mariaren irritxoak sumatzen ditut, huts egitean nebak botatzen duen birao bakoitzeko. Sokekin tenkatu dugu gurdia, zama gehiegi ez mugitzeko. Astoak abian jarri ditu Manuelek eta atzetik besteok, isilpean. Seigarren gurdikada da dagoeneko, azkena gaurkoz. Maldan behera goaz, ordu laurden inguru izango da oraindik baserrira. Lodia da ilunpea, atzean geratu ahalko nintzateke inor ohartu gabe; eta mendira ospa egin, askatasunera. Zer egingo nuke han, hala ere. Iheslari bizitzak ez nau erakartzen. Gure lerroetara itzultzea izango litzateke aukera logikoena, eta gerrarekin jarraitu. Azken asteetan bizi izan dudak bakeak zer pentsatua eman dit, ordea. Zertarako borroka egin, noren aurka. Elkarri laguntzea da jende honen ardura bakarra, baserria aurrera atera eta ahora eramateko zerbait izatea egunero. Norena da gerra, nork asmatu du. Niretzako ez da behintzat. Kortara iritsi, gurdia hustu eta astoak lotu ditugu. Manuelek lepoan jo nau, abegikorra iruditu zaidan keinu batez. Lehen aldiz. Eskaileretan gora igo eta bakoitza bere gelan desagertu da. Mariaren gelan sartu naiz, sugandilaren pare. Ez da kexatu. Ohea bero dago. Musu eman diot, besarkatu egin nau, biluztu egin gara. Samur hasieran, otso basatiak geroago. Lo harrapatu gaituzte eguzkiaren lehen izpiek.

Etzanda aurkitu zuen otsokumea itzuli zenean, geldo. Ez zion ia begiratu ere egin. Emakumeak hezur gutxi batzuk bere aurrean irauli zituenean bizitu zen. Jaten utzi zion indarrak berreskura zitzan, eta, behakoa jaso zuenean, enplastua erakutsi. Piztiak letaginak atera zizkion, muturrekoaren atzean bazen ere, baina azken aldiko basakeriarik

gabe. Emakumea hurbildu egin zitzaion eta, animaliarene urrumak aditu bazituen ere, sendabelarrez eginiko prestakina hankan zabaldu zion. Hurrengo egunetan izapide berak errepikatu zituen, otsokoa guztiz osatu zen arte. Azkenerako, ez zen urrumarik, ez zen kexarik; giza eta basa kide, lagun.

Sabaian nabil, txitoei jaten ematen. Hilabeteak pasa dira iritsi nintzenetik. Sekula sentitu ez dudane moduko barealdia nabari dut. Badakit honek ezin dezakeela luze iraun, egin behar duela noizbait eztanda. Baina ez dakit noiz eta nola. Ahotsak iruditu zaizkit kanpoan. Bi jeep etxaurrean leihatilatik behatzean. Nazionalak. Hautsi da frontea. Iritsi da eztanda. Eskaileretan behera labaindu naiz, astiro-astiro. Mariaren oihuak. Dena hausten sumatu ditut. Garailearen hordialdia. Nire gelara joan eta iritsi nintzenean aldean neraman uniformeak jantzi ditut. Mahukak estu-estu, txanoa buruan doi-doi. Eskaileretan behera abiatu naiz, segurtasunez. “Ze arraio da hau?”. Maria bazter batean, kamiseta hautsita, soldadu gazteak lardaskatzen du. Etxekoak zokondoan, izututa, beste soldaduek sukaldea hankaz gora jartzen duten artean. Denak mutu, neuri begira. Soldaduengan erreparatu dut lehen begi kolpean. Graduaziorik gabeak, ez da ofizialik tartean. Ondo atera daiteke. Mariaren gainean dagoen zerrikumearengana joan naiz lehenbizi, eta bultzada batez urrunduz. “Zertan ari haiz hi?”. Elkarri begira daude, zer egin ez dakitela. Gazteak dira, frontea erori osteko lehen festa izango da eurentzat. “Eta hi nor haiz?”, ausartu da bat. “Sektore hau geure kargu zagok”, erantzun diot. “Nork ziok?”. “Miranda kapitainak”. Ezagutzen dute, antza. Zalantza aurpegietan, goitik behera begiratzen didate. “Jarraitu aurrera. Topatuko dituzue etxe gehiago”. Botoiak lotu, uniformeak txukundu eta nazka begiradaz itzuli dira autoetara. Joaten entzun ditut. Manuel eta gurasoek izkinan jarraitzen dute, burumakur. Ondo daude, eta hori da axola duena. Besarkada beroan urtu zait Maria. Negarrez ari da. Barealdia sentitu dut,

iraunkorra oraingoan. Hau hasi besterik ez da egin, baina benetan babestu nahi dudan zerbaiten parte izatearen sentsazio gozoak bete nau.

Gau gardena zen. Ilargiaren esfera distiratiak zero oskarbia argitzen zuen, egunaren traza hartzeraino ia-ia. Lo zirauten herrixkako biztanleek. Hala zegoen otsokume arrea ere, senak esnarazi zuenera arte. Basoko sarrera begiztatu zuen, eta aurrerago berea zen otso-saldoa ernetzen nabaritu enborren baitatik. Poliki-poliki gerturatu ziren harrapariak, eta euren taldekide ohiaren parean gelditu. Otso beltzak eta zuhaitzera lotuta jarraitzen zuen otsokume arreak begirada gurutzatu zuten, luze. Ez zen inolako imintziorik izan, ez bataren ez bestearen aldetik; aurrez aurreko egonaldia besterik ez. Une batez, ilargi betera soa jaso eta uluka hasi zen gaztea, amairik ez zuela izan behar zirudien deiadar zolian. Gizonak esnarazi zituen aldarriak eta abisua eman haietako batek leinukideei, otsoen mehatxuaz ohartzean. Laster etorriko zen aldra, armez hornituta, mendeku egarriz hordituta. Otso beltzari marru garaitu bat atera zitzaion, ulergaitz, eta basoan barneratu zen bere taldekideekin batera.

Lepoa urratzen zion katea kendu zioten otsokoari, ihes egiteko aukera emanaz. Aske zela, baso aldera begiratu zuen, behinola etxe izan zuena. Geratzea erabaki zuen; emakumearen ondora joan, oina laztandu. Ilargirantz muturra altxatuta, lur arrotzean zehar barreiatu zen bere ulu ozena.